



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2007ko urriaren 31

24. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

—Foru Lege proposamena, oinarrizko irakaskuntzarako testu liburua finantzatzeari buruzkoa. Osoko Bilkurak aintzat hartua (3. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2007ko abendua baino lehen behar den konponbidea jar dezan Tuterako Erruki Etxeko eguneko zentroa irekita egon dadin eta haren funtzionamendu araubidea normalizatu dadin, eguneko zentroa garai horretan ixten baita. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lehenbailehen bete dezan apirilaren 10eko 189/2007 epaia, Bideko Autobiako Zizur Nagusiko errotulazio elebidunari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren urratsak egin ditzan 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera Foru Komunitateko herritarrei AP-15 autobidea bere ibilbide osoan doan erabiltzea ahalbidetzeko. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 0 eta 3 urte bitarteko haurrak zaintzeko laguntza emateko 500 toki gehiago jar ditzan berehala. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala profesionalak kontrata ditzan Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan ingelesezko irakaskuntza ezarri ahal izateko. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da informazioaren eta komunikazioaren teknologiak berrizatzeko plan bat ezar dezan irakaskuntza publikoan, eta horretarako ordenagailuak eros ditzan eta ikasgela guztietan ikus-entzunezko materiala ezar dezan. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2008. urterako Nafarroako aurrekontuen proiektua lantzeko prozesuan sar ditzan A-15 autobideko ordainsaria kentzeko behar diren aurrekontu-aurreikuspenak, asmo hori errealitatea izan dadin 2008. urtean. Osoko Bilkurak bazter utzia (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako Merkataritzaren Kontseilu Nagusia sortu eta abian jar dezan. Osoko Bilkurak bazter utzia (8. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, jakiteko zergatik Osasun Departamentuak ez dituen hartu osasun larrialdietako teknikariak, hauek lan plana eta zerbitzuaren ebaluazioa aurkez zitzaten, Ana Figueras Castellano andreak egina (9. or.).
- Galdera, jakiteko kontseilariak uste duen Nafarroako Gobernuak edo Iruñeko Udalak erkidego honetako kultur balioen aurkako erasorik egin duten edo egiten ari diren, José Luis Izco Biarge jaunak egina (10. or.).
- Galdera, azken bost urteotan % 1 kulturala programara aurkeztutako eta zuzenean foru administrazioarekin zerikusia duten jarduera-proiektuei buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (10. or.).
- Galdera, Espainiako Gobernuari %1 kulturala dela-eta Tuterako katedralaren klaustroa eta hari erantsita-koak zaharbertitzeko eskaturiko laguntzen espedienteko administrazio-urratsei buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (11. or.).
- Galdera, jakiteko ea Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak behar bezalako eta behar adinako segurtasun-neurriak hartuak dituen N-232 errepidearen bikoizketaren ondoriozko behin-behineko erreietan, Castejón-Tutera bide-zatian. José M<sup>a</sup> Vázquez Royo jaunak egina (12. or.).
- Galdera, asmoen arabera Donejakue bideko autobiatuak mantentze-zerbitzuetatik zein hartu behar zituen emakida-hartzaileak eta zein foru administrazioak, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (12. or.).
- Galdera, giza papilomaren birusari eta txertatze-kanpainari buruzkoa, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egina (13. or.).
- Galdera, eskariaren kanona izenaz ezagutzen denaren zenbatekoa zehazte aldera Donejakue bideko autobiatuak iragaten diren ibilgailuak kontatzeko xedez autobia horretan ezarrita dauden gailuei buruzkoa, Juan José Lizarbe Baztán jaunak egina (14. or.).
- Galdera, eskariaren kanona izenaz ezagutzen dena zehazte aldera ibilgailuen kontaketa egiteko Bideko Autobidean jarri diren gailuak ezarrita dauden kilometro puntuei buruzkoa, Juan José Lizarbe Baztán jaunak egina (14. or.).
- Galdera, eskariaren kanona izenaz ezagutzen dena zehazte aldera Bideko Autobidetik iragaten diren ibilgailuak kontatzeko autobia horretan ezarrita dauden gailuen informazioa lortzeko Nafarroako Gobernuak erabiltzen dituen gauza- eta giza-baliabideei buruzkoa. Juan José Lizarbe Baztán jaunak egina (15. or.).
- Galdera, eskariaren kanona izenaz ezagutzen dena zehazte aldera Bideko Autobidetik iragaten diren ibilgailuak kontatzeko autobia horretan ezarrita dauden gailuen luzetarako tarteari buruzkoa, Juan José Lizarbe Baztán jaunak egina (16. or.).
- Galdera, eskariaren kanona izenaz ezagutzen dena zehazte aldera Bideko Autobidetik iragaten diren ibilgailuak kontatzeko autobia horretan ezarrita dauden gailuen instalazio- eta mantentze-lanak Nafarroako Gobernuak zein departamentuk kontratatu zuen jakitekoa (16. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Bardeako tiro poligonoa desegiteko egindako kudeaketei buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (17. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak, Foruzaingoaren Altsasuko eta Elizondoko prebentzio taldeak direla eta, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko hartu dituen neurriei buruzkoa, Paula Kasares Corrales andreak egina (18. or.).
- Galdera, bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsuari buruz Nafarroako Parlamentuak onetsitako erabakia betetze aldera hartutako neurriei buruzkoa, Nekane Pérez Irazábal andreak egina (18. or.).

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Eskola Kontseiluan edo Hezkuntza Batzorde Nagusian dituen bi ordezkariak hautatzeari buruzko arauak (20. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru Lege proposamena, oinarrizko irakaskuntzarako testu liburua finantzatzeari buruzkoa.**

*OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA*

Legebiltzarrak, 2007ko urriaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, oinarrizko irakaskuntzarako testu liburua finantzatzeari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkez-

tu eta 2007ko irailaren 14ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko urriaren 25ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

---

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2007ko abendua baino lehen behar den konponbidea jar dezan Tuterako Erruki Etxeko eguneko zentroa irekita egon dadin eta haren funtzionamendu araubidea normalizatu dadin, eguneko zentroa garai horretan ixten baita.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2007ko urriaren 25ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da 2007ko abendua baino lehen behar den konponbidea jar dezan Tuterako Erruki Etxeko eguneko zentroa irekita egon dadin eta haren funtzionamendu araubidea normalizatu dadin, eguneko zentroa garai horretan ixten baita."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko urriaren 25ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2007ko abendua baino lehen behar den konponbidea jar dezan Tuterako Erruki Etxeko eguneko zentroa irekita egon dadin eta haren funtzionamendu araubidea normalizatu dadin, eguneko zentroa garai horretan ixten baita**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2007ko abendua baino lehen, eguneko zentroa garai horretan ixten baita, behar den konponbidea jar dezan, zentroa irekita egon dadin eta haren funtzionamendu araubidea normalizatu dadin.

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lehenbailehen bete dezan apirilaren 10eko 189/2007 epaia, Bideko Autobiako Zizur Nagusiko errotulazio elebidunari buruzkoa.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2007ko urriaren 25ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da lehenbailehen bete dezan apirilaren 10eko 189/2007 epaia, Bideko Autobiako Zizur Nagusiko errotulazio elebidunari buruzkoa."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko urriaren 25ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lehenbailehen bete dezan apirilaren 10eko 189/2007 epaia, Bideko Autobiako Zizur Nagusiko errotulazio elebidunari buruzkoa**

1. Nafarroako Parlamentuak eskatzen dio Nafarroako Gobernuari lehenbailehen bete dezan apirilaren 10eko 189/2007 epaia, Donejakue bideko

autobiako Zizur Nagusiko errotulazio elebidunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuak eskatzen dio Nafarroako Gobernuari atzera egin dezan apirilaren 10eko 189/2007 epaiaren aurka Auzitegi Gorenean jarritako errekurtsioan.

3. Nafarroako Parlamentuak eskatzen dio Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari Donejakue bideko autobiako seinaleak ordeztzeko, eta errespetatuzala autobia horretako seinaleetan ageri diren herrietako izen elebidunak.

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren urratsak egin ditzan 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera Foru Komunitateko herritarrei AP-15 autobidea bere ibilbide osoan doan erabiltzea ahalbidetzeko.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2007ko urriaren 25ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren urratsak egin ditzan 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera Foru Komunitateko herritarrei AP-15 autobidea bere ibilbide osoan doan erabiltzea ahalbidetzeko".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko urriaren 25ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren urratsak egin ditzan 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera Foru Komunitateko herritarrei AP-15 autobidea bere ibilbide osoan doan erabiltzea ahalbidetzeko**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren urratsak egin ditzan Nafarroako Foru Komunitateko herritarrei ahalbidetzeko AP-15 autobidea bere ibilbide osoan doan erabiltzea 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera, hala emakida erreskatatuz, nola, bestela, Nafarroako herritarrentzako sistema orokor bat ezarriz bidesariaren zenbatekoaren adinako zerga-arintzea modu automatikoan gauzatuko diena bide hori erabiltzeko unean bertan.

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 0 eta 3 urte bitarteko haurrak zaintzeko laguntza emateko 500 toki gehiago jar ditzan berehala.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2007ko urriaren 25ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da 0 eta 3 urte bitarteko haurrak zaintzeko laguntza emateko 500 toki gehiago jar ditzan berehala."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko urriaren 25ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 0 eta 3 urte bitarteko haurrak zaintzeko laguntza emateko 500 toki gehiago jar ditzan berehala**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari exijitzen dio 0 eta 3 urte bitarteko haurrak zaintzeko 500 toki gehiago jar ditzan berehala.

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala profesionalak kontrata ditzan Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan ingelesezko irakaskuntza ezarri ahal izateko.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2007ko urriaren 25ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala profesionalak kontrata ditzan Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan ingelesezko irakaskuntza ezarri ahal izateko."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko urriaren 25ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala profesionalak kontrata ditzan Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan ingelesezko irakaskuntza ezarri ahal izateko**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari exijitzen dio berehala profesionalak kontrata ditzan ingelesezko irakaskuntza ezarri ahal izateko Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan.

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da informazioaren eta komunikazioaren teknologiak berriztatzeko plan bat ezar dezan irakaskuntza publikoan, eta horretarako ordenagailuak eros ditzan eta ikasgela guztietan ikus-entzunezko materiala ezar dezan.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2007ko urriaren 25ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da informazioaren eta komunikazioaren teknologiak berriztatzeko plan bat ezar dezan irakaskuntza publikoan, eta horretarako ordenagailuak eros ditzan eta ikasgela guztietan ikus-entzunezko materiala ezar dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko urriaren 25ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da informazioaren eta komunikazioaren teknologiak berriztatzeko plan bat ezar dezan irakaskuntza publikoan, eta horretarako ordenagailuak eros ditzan eta ikasgela guztietan ikus-entzunezko materiala ezar dezan**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari exijitzen dio informazioaren eta komunikazioaren teknologiak modernizatzeko plan bat ezar dezan, eta horretarako ordenagailuak eros ditzan eta Nafarroako irakaskuntza publikoko ikasgela guztietan ikus-entzunezko materiala ezar dezan.

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2008. urterako Nafarroako aurrekontuen proiektua lantzeko prozesuan sar ditzan A-15 autobideko ordainsaria kentzeko behar diren aurrekontu-aurreikuspenak, asmo hori errealitatea izan dadin 2008. urtean.**

*OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da 2008. urterako Nafarroako aurrekontuen proiektua lantzeko prozesuan sar ditzan A-15 autobideko ordainsaria kentzeko behar diren aurrekontu-aurreikuspenak, asmo hori errealitatea izan dadin 2008. urtean".

Legebiltzarrak 2007ko urriaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2007ko irailaren 21eko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko urriaren 25ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Merkataritzaren Kontseilu Nagusia sortu eta abian jar dezan.**

*OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Merkataritzaren Kontseilu Nagusia sortu eta abian jar dezan?"

Legebiltzarrak 2007ko urriaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertzea. Mozio hori 2007ko irailaren 28ko 11. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko urriaren 25ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros



---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, jakiteko zergatik Osasun Departamentuak ez dituen hartu osasun larrialdietako teknikariak, hauek lan plana eta zerbitzuaren ebaluazioa aurkez zitzen.**

*ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, jakiteko zergatik Osasun Departamentuak ez dituen hartu osasun larrialdietako teknikariak, hauek lan plana eta zerbitzuaren ebaluazioa aurkez zitzen.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2007ko urriaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babe-

sean, honako galdera hau egin du, Osoko Bilkuran erantzun dakion.

Nafarroako Osasun Larrialdietako Teknikarien Elkarreak larrialdi kasuetarako jarduera proiektu integral bat aurkeztu du Nafarroako Gobernuako Osasun Departamentuan, eta departamentuko arduradunekin bilera bat egitea eskatu du.

Eremu horretan lan egiten duten 250 profesionalak zehaztasun guztiekin azaldu digute, Parlamentuan eginiko lan bilkuran, nola ulertzen duten izan beharko luketela gaixoentzako zerbitzuak eta kolektibo horrek egin beharreko lanak.

Galdera hauei erantzutea nahi dut:

Zergatik ez die Departamentuak harrera egin osasun larrialdietako teknikariei, haiek lan plana eta zerbitzuaren ebaluazioa aurkezteko?

Aurreikusi al du Osasun Departamentuak zerbitzu hori enpresa publiko baten bitartez ematea, beste erkidego batzuetan egiten den bezala?

Iruñean, 2007ko urriaren 11n

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

## **Galdera, jakiteko kontseilariak uste duen Nafarroako Gobernuak edo Iruñeko Udalak erkidego honetako kultur balioen aurkako erasorik egin duten edo egiten ari diren.**

*JOSÉ LUIS IZCO BIARGE JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea José Luis Izco Biarge jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko kontseilariak uste duen Nafarroako Gobernuak edo Iruñeko Udalak erkidego honetako kultur balioen aurkako erasorik egin duten edo egiten ari diren.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2007ko urriaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Luis Izco Biargek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoarekin bat, ondoko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Kontseilariaren ustez, erkidego honetako kultur balioen aurkako erasorik egin al dute edo egiten ari al dira Nafarroako Gobernuak edo Iruñeko Udala?

Iruñean, 2007ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: José Luis Izco Biarge

## **Galdera, azken bost urteotan % 1 kulturala programara aurkeztutako eta zuzenean foru administrazioarekin zerikusia duten jarduera-proiektuei buruzkoa.**

*ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, azken bost urteotan % 1 kulturala programara aurkeztutako eta zuzenean foru administrazioarekin zerikusia duten jarduera-proiektuei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko urriaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Román Felones Morrás-ek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Kultura eta Turismo kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Nafarroako Foru Hobetzeko 44. artikulua arabera Nafarroak eskumen osoa du arlo hauetan: kultura, ondarea, artxiboak, liburutegiak, museoak eta arte ederren sustapenarekin eta irakaskuntzarekin zerikusia duten erakundeak. Edonola ere, arau horrek berak ezartzen duenez, kulturaren arloko eskumena "Estatuarekin koordinaturik" gauzatuko da.

Bestalde, Espainiako ondare historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legeak, 68. artikuluan, % 1 kulturala izeneko sustapen neurria jasotzen du; neurri hori errege dekretuetan eta aginduetan garatu izan da.

Sustapen-neurri hori dela-eta Nafarroako Gobernuak zer ekimen egiten ari den jakite aldera honakoen berri izan nahi dugu:

- Azken bost urteotan % 1 kulturala programara aurkeztutako eta zuzenean foru administrazioarekin zerikusia duten jarduerak-proiektuak.

- Onartutako proiektuak eta emandako laguntzen hasierako zenbatekoa.

- Baztertutako proiektuak eta emandako arrazoiak.

Iruñean, 2007ko urriaren 11n

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

## **Galdera, Espainiako Gobernuari %1 kulturala dela-eta Tuterako katedralaren klaustroa eta hari erantsitakoak zaharberritzeko eskaturiko laguntzen espedienteko administrazio-urratsei buruzkoa.**

*ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Espainiako Gobernuari %1 kulturala dela-eta Tuterako katedralaren klaustroa eta hari erantsitakoak zaharberritzeko eskaturiko laguntzen espedienteko administrazio-urratsei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarrako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko urriaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Román Felones Morrás-ek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Kultura eta Turismo kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Zioak:

Nafarroako Foru Hobetzeko 44. artikuluko 8., 9., 10., eta 11. idatz-zatien arabera, Nafarroak eskumen osoa du arlo hauetan: kultura, ondarea, artxiboak, liburutegiak, museoak eta arte ederren sustapenarekin eta irakaskuntzarekin zerikusia duten erakundeak. Edonola ere, arau horrek berak ezartzen duenez, kulturaren arloko eskumena "Estatuarekin koordinaturik" gauzatuko da.

Bestalde, Espainiako ondare historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legeak, 68. artikuluan, % 1 kulturala izeneko sustapen neurria jasotzen du; neurri hori errege dekretuetan eta aginduetan garatu izan da.

Araudi hori oinarri, Nafarroako Gobernuak Espainiako Gobernuari behar ziren laguntzak eskatu zizkion Tuterako katedralaren klaustroa eta hari erantsitakoak zaharberritzeko, eta orain arte ez dakigu zein egoera administratibotan dagoen espediente hori. Afera zer egoeratan dagoen jakiteko, honakoen berri izan nahi dugu:

- Zein administrazio-urrats izan ditu Nafarroako Gobernuak Espainiako Gobernuari % 1 kulturala dela-eta Tuterako katedralaren klaustroa eta hari erantsitakoak zaharberritzeko eskaturiko laguntzen espedienteak, eskatu zirenetik orain arte?

Iruñean, 2007ko urriaren 11n

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

## **Galdera, jakiteko ea Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak behar bezalako eta behar adinako segurtasun-neurriak hartuak dituen N-232 errepidearen bikoizketaren ondoriozko behin-behineko erreietan, Castejón-Tutera bide-zatian.**

*JOSÉ M<sup>a</sup> VÁZQUEZ ROYO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea José M<sup>a</sup> Vázquez Royo jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ea Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak behar bezalako eta behar adinako segurtasun-neurriak hartuak dituen N-232 errepidearen bikoizketaren ondoriozko behin-behineko erreietan, Castejón-Tutera bide-zatian.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarrako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko urriaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José M<sup>a</sup> Vázquez Royok, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak idatziz erantzun dezan:

- Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren iritziz behar bezalako eta behar adinako segurtasun-neurriak hartuak al ditu N-232 errepidearen bikoizketaren ondoriozko behin-behineko zirkulazio erreietan, Castejón-Tutera bide-zatian?

Iruñean, 2007ko urriaren 16an

Foru parlamentaria: José M<sup>a</sup> Vázquez Royo

## **Galdera, asmoen arabera Donejakue bideko autobiko mantentze-zerbitzuetatik zein hartu behar zituen emakida-hartzaileak eta zein foru administrazioak.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, asmoen arabera Donejakue bideko autobiko mantentze-zerbitzuetatik zein hartu behar zituen emakida-hartzaileak eta zein foru administrazioak.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarrako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko urriaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoan babesean, honako galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dadin:

Comptos Ganberak urriaren 16an Ekonomia Batzordean egin zuen agerraldian azaldu zuenez, Nafarroako Gobernuak "Donejakue bideko autobiko" izenarekin ezagutzen denaren mantentze-lanak transferitu egin zizkion emakida-hartzaileari, nahiz eta hasieran administrazioak bere gain hartzea aurreikusia zegoen. Horrek eragin handia izan zuen administrazioak ordaindu beharreko kanonean.

Horri buruz, parlamentari honek hau jakin nahi du:

Lehena. Zer mantentze-zerbitzu zegoen hasieran aurreikusia hartuko zituela emakida-hartzaileak, eta zer mantentze-zerbitzu, foru administrazioak?

Bigarrena. Zein arrazoik eragin dute eta zer txosten izan da oinarri enpresak bere gain hartzeko hasieran aurreikusten ez ziren mantentze-lanak?

Hirugarrena. Zein dira aldaketaren ondotik enpresak bere gain hartzen dituen lan zehatzak?

Laugarrena. Foru administrazioak ba al zuen mantentze-lan horiek egiteko baliabiderik, finantzaketarik eta bitartekorik?

Iruñean, 2007ko urriaren 16an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, giza papilomaren birusari eta txertatze-kanpainari buruzkoa.**

### *ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, giza papilomaren birusari eta txertatze-kanpainari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarrako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko urriaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialdek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hauek aurkeztu ditu Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuak idatziz erantzun ditzan:

1. Zein da giza papilomaren birusak eragindako infekzioen tasa, adinka emanda, Nafarroan?

2. Zein da umetokiko lepoko kartzinomaren prebalentzia, adinka emanda, Nafarroan?

3. Zein da umetokiko lepoko kartzinomaren hilkortasun-tasa, adinka emanda, Nafarroan?

4. Nafarroan umetokiko lepoko kartzinomaren ondorioz hildako emakumeetatik, zenbati ez zitzaion egin umetokiko lepoko zitologiarik era jarraituan?

Gobernuak nesken txertatze masiboa erabakitzeko izan dituen arrazoiak jakiteko:

5. Zer eraginkortasun frogatu du giza papilomaren birusaren aurkako txertoak?

6. Zenbat irauten du txertoak sortutako immunitateak?

7. Azken galdera hori dela-eta, pentsatu al da txertoa berriro jarri beharko ote den eta zenbatetik behin?

8. Zein helburu espezifiko ditu neskatoen txertatze masiboaren kanpainak?

Txertatutako emakumeengan infekzioa ekiditea?

Giza papilomaren birusarengatik infekzioak erabat desagarrereztea?

Umetokiko lepoko displasiak ekiditea?

Umetokiko lepoko minbiziak ekiditea?

Minbizi horrek eragiten duen hilkortasun-tasa ekiditea?

9. Zer aurrekontu du neskei era masiboan giza papilomaren birusaren aurkako txertoa jartzeko kanpainak?

10. Ba al dago asmorik adin txikikoen edo haien ordezkarien baimen informatua edo gutxienez ere onespina eskatzeko?

11. Ez al duzu uste sexu hezkuntza egokia, besteak beste sexu-transmisiozko gaixotasunak gutxitzea eta/edo horiei aurre egitea helburu duena, izan daitekeela birus horren aurkako txertorik hoberena?

Iruñean, 2007ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde

**Galdera, eskariaren kanona izenaz ezagutzen denaren zenbatekoa zehazte aldera Donejakue bideko autobiatik iragaten diren ibilgailuak kontatzeko xedez autobia horretan ezarrita dauden gailuei buruzkoa.**

*JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTÁN JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Juan José Lizarbe Baztán jaunak aurkeztutako galdera, eskariaren kanona izenaz ezagutzen denaren zenbatekoa zehazte aldera Donejakue bideko autobiatik iragaten diren ibilgailuak kontatzeko xedez autobia horretan ezarrita dauden gailuei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarrako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko urriaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztánek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatzizko erantzuna eman diezaion:

Eskariaren kanona izenaz ezagutzen denaren zenbatekoa zehazte aldera, zer gailu, tresna edo mekanismo jarri dira A-12an, hots, Donejakue bideko autobian, bertatik iragaten diren ibilgailuak kontatzeko xedez?

Iruñean, 2007ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

**Galdera, eskariaren kanona izenaz ezagutzen dena zehazte aldera ibilgailuen kontaketa egiteko Bideko Autobidean jarri diren gailuak ezarrita dauden kilometro puntuei buruzkoa.**

*JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTÁN JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Juan José Lizarbe Baztán jaunak aurkeztutako galdera, eskariaren kanona izenaz ezagutzen dena zehazte aldera ibilgailuen kontaketa egiteko Bideko Autobidean jarri diren gailuak ezarrita dauden kilometro puntuei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarrako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko urriaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztánek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatzizko erantzuna eman diezaion:

Eskariaren kanona izenaz ezagutzen denaren zenbatekoa zehazte aldera A-12an, hots, Donejakue bideko autobian, bertatik iragaten diren ibilgailuak kontatzeko xedez jarri diren gailu, tresna edo mekanismoak zer kilometro puntutan daude?

Iruñean, 2007ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

**Galdera, eskariaren kanona izenaz ezagutzen dena zehazte aldera Bideko Autobidetik iragaten diren ibilgailuak kontatzeko autobia horretan ezarrita dauden gailuen informazioa lortzeko Nafarroako Gobernuak erabiltzen dituen gauza- eta giza-baliabideei buruzkoa.**

*JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTÁN JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Juan José Lizarbe Baztán jaunak aurkeztutako galdera, eskariaren kanona izenaz ezagutzen dena zehazte aldera Bideko Autobidetik iragaten diren ibilgailuak kontatzeko autobia horretan ezarrita dauden gailuen informazioa lortzeko Nafarroako Gobernuak erabiltzen dituen gauza- eta giza-baliabideei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarrako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko urriaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztánek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatzizko erantzuna eman diezaion:

Eskariaren kanona izenaz ezagutzen denaren zenbatekoa zehazte aldera A-12an, hots, Donejake bideko autobian, bertatik iragaten diren ibilgailuak kontatzeko xedez jarri diren gailu, tresna edo mekanismoek ematen duten informazioa Nafarroako Gobernuak zer baliabide materialen eta giza baliabideren bitartez eskuratzen du?

Iruñean, 2007ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

## **Galdera, eskariaren kanona izenaz ezagutzen dena zehazte aldera Bideko Autobidetik iragaten diren ibilgailuak kontatzeko autobia horretan ezarrita dauden gailuen luzetarako tarteari buruzkoa.**

*JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTÁN JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Juan José Lizarbe Baztán jaunak aurkeztutako galdera, eskariaren kanona izenaz ezagutzen dena zehazte aldera Bideko Autobidetik iragaten diren ibilgailuak kontatzeko autobia horretan ezarrita dauden gailuen luzetarako tarteari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarrako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko urriaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatzizko erantzuna eman diezaion:

Eskariaren kanona izenaz ezagutzen denaren zenbatekoa zehazte aldera A-12an, hots, Donejakue bideko autobian, bertatik iragaten diren ibilgailuak kontatzeko xedez zenbait kilometro-puntutan ezarrita dagoen gailu, tresna edo mekanismo bakoitza luzetarako zer tarteri dagokio? Zehatz bitez tarte bakoitzaren hasierako eta bukaerako kilometro puntuak.

Iruñean, 2007ko urriaren 16an.

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

## **Galdera, eskariaren kanona izenaz ezagutzen dena zehazte aldera Bideko Autobidetik iragaten diren ibilgailuak kontatzeko autobia horretan ezarrita dauden gailuen instalazio- eta mantentze-lanak Nafarroako Gobernuko zein departamentuk kontratatu zuen jakitekoa.**

*JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTÁN JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Juan José Lizarbe Baztán jaunak aurkeztutako galdera, eskariaren kanona izenaz ezagutzen dena zehazte aldera Bideko Autobidetik iragaten diren ibilgailuak kontatzeko autobia horretan ezarrita dauden gailuen instalazio- eta mantentze-lanak Nafarroako Gober-

nuko zein departamentuk kontratatu zuen jakitekoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarrako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko urriaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda



**GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztánek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatzizko erantzuna eman diezaion:

Eskariaren kanona izenaz ezagutzen denaren zenbatekoa zehazte aldera A-12an, hots, Doneja-

kue bideko autobian, bertatik iragaten diren ibilgai-luak kontatzeko xedez autobia horretan ezarrita dauden gailu, tresna edo mekanismoen instalazio-eta mantentze-lanak Nafarroako Gobernuak zein departamentuk kontratatu ditu?

Iruñean, 2007ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

---

## **Galdera, Nafarroako Gobernuak Bardeako tiro poligonoa desegiteko egindako kudeaketei buruzkoa.**

**IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak Bardeako tiro poligonoa desegiteko egindako kudeaketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarrako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko urriaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gobernuak Bardeako tiro poligonoa desegiteko egindako kudeaketei buruz

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorre jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak Bardeako tiro poligonoa desegiteko egindako urratsei buruzko galdera:

1.- Egin al du Nafarroako Gobernuak jardueran bat edo urratsen bat Bardeako tiro poligonoa desegin dadin errazteko, Errege Bardeako Komunitatearen eta Defentsa Ministerioaren arteko egungo hitzarmena bukatzen denean, legebiltzar honek 2003ko martxoaren 25ean onetsitako mozioan eskatu bezala?

2.- Hartu-emanik izan al du Nafarroako Gobernuak, edo halakorik egin ez badu, ba al du asmorik hartu-emanik izateko Espainiako Gobernuarekin hari informazioa eskatzeko aipatu hitzarmena bukatzen denean Bardeako tiro poligonoa desegiteko egin dituen urratsei buruz?

3.- Elkarrizketarik izan al du, edo izateko asmorik ba al du, Nafarroako Gobernuak Bardeako Komunitatearekin, erkidego horren jarrera izan dadin Defentsa Ministerioarekin beste hitzarmenik ez egitea heldu den urteko abenduan egun indarra duena amaitzen denean?

4.- Aurreikusi al du beste jarduerarik horri buruz?

Iruñean, 2007ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

## **Galdera, Nafarroako Gobernuak, Foruzaingoaren Altsasuko eta Elizondoko prebentzio taldeak direla eta, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko hartu dituen neurriei buruzkoa.**

*PAULA KASARES CORRALES ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Paula Kasares Corrales andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak, Foruzaingoaren Altsasuko eta Elizondoko prebentzio taldeak direla eta, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko hartu dituen neurriei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarrako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko urriaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERARENTESUA**

Pauta Kasares Corralesek, Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko Erre-

gelamenduan xedatutakoaren arabera, Foruzaingoaren Altsasuko eta Elizondoko Prebentzio taldeak direla eta, ondoko galdera hau egin nahi du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion.

906/2007 Ebazpenak, maiatzaren 23koak, Barne zuzendari nagusiak emanak, Nafarroako Foruzaingoko foruzain izateko 103 lanpostu izendapen librearen, lehiaketaren edo lehiaketa berarizkoaren bidez betetzeko deialdia onetsi zuen.

Ebazpenak lanpostu horiek antolatetako zein unitateri atxikiko zaizkion zehazten du. Unitate horietako bi Altsasuko eta Elizondoko prebentzio taldeak dira.

Hori horrela,

Zer neurri hartu du Nafarroako Gobernuak, lanpostuak betetzeko momentuan, euskara hizkuntza ofiziala den eremuan ezarrita dauden bi unitate horiek herritarrek legez aitortuak dituzten hizkuntza eskubideak errespetatu eta begiratze-ko?

Iruñean, 2007ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: Paula Kasares Corrales

## **Galdera, bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsuari buruz Nafarroako Parlamentuak onetsitako erabakia betetze aldera hartutako neurriei buruzkoa.**

*NEKANE PÉREZ IRAZÁBAL ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nekane Pérez Irazábal andreak aurkeztutako galdera, bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsuari buruz Nafarroako Parlamentuak onetsitako erabakia betetze aldera hartutako neurriei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarrako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko urriaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nekane Perez Irazabal andreak, Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren arabera, bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsua dela-eta, ondoko galdera egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion.

Nafarroako Parlamentuak 2006ko martxoaren 16an egindako Osoko Bilkuran honako erabaki hau onetsi zuen:

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da neurriak har ditzan administrazio publikoek bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsuan parte har dezaten

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du neurri juridikoak, finantzarioak eta antolamenduzkoak har ditzan administrazio publikoek parte har dezaten bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsuan, eta arlo horretan lan egiten duten erakundeen ondoko jarduerak babes ditzan: kontsumitzaileei informazioa ematea, hezkuntza, sentsibilizazioa, merkatuko mintzakideen informazioa, eta iraunkortasunaren teknologiak sartzea merkatuaren kate osoan.

Hori horrela,

Zer neurri hartu ditu Nafarroako Gobernuak aipatu erabaki hori betetze aldera?

Iruñean, 2007ko urriaren 18an

Foru parlamentaria: Nekane Pérez Irazabal

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

## Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Eskola Kontseiluan edo Hezkuntza Batzorde Nagusian dituen bi ordezkariak hautatzeari buruzko arauak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 29an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntza-kontseiluko Batzorde Nagusia eta Tokiko Kontseiluak arautzen dituen azaroaren 4ko 12/1997 Foru Legeak ezartzen duenez, 4. artikuluko 1. idatz-zatiko j) letran hain zuzen, Eskola Kontseilua edo Hezkuntza-kontseiluko Batzorde Nagusia osatuko dute, besteak beste, Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeko bi kidek, hark hautatuak.

Joan den maiatzaren 27an Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak egin zirenez gero, Parlamentuak Nafarroako Eskola Kontseiluan dituen ordezkariak hautatzea bidezko da, aipaturiko foru legeko 6. artikuluari jarraikiz, Hezkuntza kontseilariak urriaren 18ko idazkian adierazten duen bezala. Hori dela-eta, hautaketari buruzko arauak onetsi behar dira.

Hori horrela, ERABAKI DUGU:

**Lehena.-** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Eskola Kontseiluan edo Hezkuntza Batzorde Nagusian dituen bi ordezkariak hautatzeari buruzko arau hauek onestea:

1. Hezkuntza Batzordekoak diren foru parlamentarien artean eginen da hautaketa, txartel bidezko bozketa isilpekoan.

2. Bi ordezkariak aldi berean hautatuko dira, eta Batzordeko kide den foru parlamentari bakoitzak, txartelean, bete beharreko postuak adina izen idatzi ahalko ditu.

3. Hautatuko dira botorik gehien lortzen duten bi parlamentariak.

4. Postuetakoren baterako berdinketarik izanez gero, botazioak eginen dira berdinketa desegin arte.

5. Hautagaiak aurkezteko epea heldu den azaroaren 5eko 10:00etan amaituko da.

**Bigarrena.-** Erabaki hau jakinaraztea parlamentu-taldeetako eta foru parlamentarien elkarteetako eledunei, eta arauok Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agintzea.

Iruñean, 2007ko urriaren 29an

Jarduneko lehendakaria: Jesús Javier Marcote-gui Ros

<p><b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b></p> <p>Urtebete ..... 45,15 euro Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko ..... 1,18 » Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko ..... 1,34 »</p>	<p><b>IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA</p>
---	--